


Izpiliku sasi  
gibelean gordeturik,

# Cyranok

lixibaren usain ona zuen

cie.hecho   
en casa

Tai-Marc Le Thanh  
Rebecca Dautremer  
Hervé Estebetguy

Publiko guziendako  
6 urtetik goiti

# KONPANIA

## « Hecho en casa » Konpania

Ongi etorri gure etxera,

Gure xintxuketa artistiko munduan, etxean bezala sendituko zira eta hobe horrela ... Badu urte andana bat orain, antzerkia murtzikatzen dugula hizkuntza eta molde ezberdinetan, arruntki edo sakonki... Ikusgarriak eraikitzen ditugu ideiak biziarazteko, bazterrak harrotzeko, irri eginarazteko edo gogoetrazteko... Helburu horiekin gabiltza, horrela definitzen baitugu bizirik dagoen artea, aro numerikoan izanki ere. Ongi etorri, gure etxea zurea da, **sartu atean jo gabe...**

« Hecho en casa » konpanian, ingurumen ezberdinetarik etorritako artistak aukitzen dira. « Ixtorio moldatzaile » batzu dira, denetan sudurra sartzen dakitenak : antzerkian, idazkeran, dantzan edota arte plastikoetan. Esperimentatzea eta **gauza berriak asmatzea edo bermoldatzea laket dute**, errealitatea inarosteko, haien begirada bihozberatasunari lotuz batez ere. Haien proiektuetan, idazten dute, taulagaineratzen dute, jokoan aritzen dira. Hots, etxe bat eraikitzen den moduan, hortan eta hartan, harriz harri.

### Historiko laburra :

- 2005 : Ramon Grifforeren « *Utoppia* » filme-ertaina
- 2007 : André Chediden eleberritik egindako « *L'enfant du manège* » Publiko gaztearendako ikusgarria
- 2008 : Joël Pommeraten « *Este niño* » Publiko guziendako gaztelelrazko ikusgarria
- 2008 : Ana Harcha Cortésen « *Lulú* » Publiko guziendako gaztelelrazko ikusgarria
- Théâtre des Chimères konpaniarekin partaidetzan
- 2011 : Eric Puybarre-ren gazteentzako liburutik inspiraturik « *Cache Lune* » Publiko gaztearentzako ikusgarria
- 2011 : Benjamin Lacombe.n obratik inspiraturik « *Histoire de...* » Publiko gaztearentzako ikusgarria
- 2013 : Stéphane Piquemal.en « *Les étincelles* »
- 2014 : Alejandro Jodorowsky-ren « *Opéra Panique* » kabarete tragikoa
- 2014 : Tai-Marc Le Thanh.en « *Caché dans son buisson de lavande, Cyrano sentait bon la lessive* », Rébecca Dautremere.en « *Cyrano* » gazteentzako liburutik moldatua eta inspiratua
- 2015 : Luis Alberto Rodriguez.en « *Todos somos extranjeros* »
- 2015-16 : Luis Alberto Rodriguez.en « *El pasajero clandestino* »
- 2017 : « *Caché dans son buisson de lavande, Cyrano sentait bon la lessive* » Euskarazko bertsoia (« *Izpiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen* »)





# DAZLEA, TÀI - MARC LE THANH

Tai-Marc Le Thanh ek arte grafikoak aztertu ditu, lehenik Pariseko Sèvres.eko Atelierran, gero Rueil Malmaison.eko Arte Ederretan ta azkenik EMSAT.en. Informatika prentsa talde batean sartu zen grafista gisa. Eyrolles Edizioetan lehen obra bat idatzi zuen... Photoshop programaz ! Fikzio idazkeratik urrun beraz... baina laster, liburu idazten abiatu zen, ilustratzaile famatuen sahetsean, hala nola Rébecca Dautremer (« Babayaga », « Cyrano », « Le grand courant d'air », « Elvis ») baita ere Aurélie Fronty, Elodie Nouthen, Jacques de Loustal, Merlin, Benjamin Chaud, Barroux, Gérard Guerlais ... 2010az geroz, « Jonah » deitutako sailari dedikatzen da, baita ere animazio filma gidoi baten egiteari. Bere idazteko moldeak, beti bizia eta ustekabeak dena, segidan harrapatzen gaitu.

## ILUSTRATZAILEA, RÉBECCA DAUTREMER

Argazkigintzaz errabiatua, diseinua eta grafismoa estudiatzen ditu tailer berezietan eta ondotik Pariseko ENSAD goi mailako Arte Eskolan sartzen da, « Grafismo » estudio ibilbidea abiatuz.

Eskolatik ateratzean 1995 urtean, Gautier Langureau argitaletxeak liburu baten irudikatzea galdegiten dio, ta ondotik beste batena...

2003tik goiti, bere estilo propioaren garatzen abiatzen da « L'Amoureux » albumarekin. Rébecca Dautremer ilustratzailea 2004 urtean famatua bilakatzen da « Princesses oubliées ou inconnues » liburu argitaratzen denean.

# ISTORIA

Cyranok sudur potolo bat zeukan.  
Cyrano, Roxanne bere kusiaz maitemindua zen, baina ez zen menturatzen erraitera (bere sudur potoloarengatik).

Beharrik, poeta zen Cyrano ...

# TESTU ZATIAK

« Sudur potolo bat izanik ere bizitza normal bat ukan daiteke.  
Jan (biperbeltza heinean emanez), edan (lasto batekin), lo egin (tripa gainean ezik) eta maitemindu (zailago...)».

Cyrano **amoros** zen.  
Roxanne bere kusiaz maitemindua zen.

Erran zioten ez zela hain ongi bere kusiaz amorostea, baina gisa guziz ez zen menturatzen deklaratzera (bere sudur potoloarengatik), ordian...  
Cyrano **malerus** zen ».



# PROIEKTUA

## *Haurrendako Cyrano bat*

Itzaleko heroi baten kontakizun atipikoa da Cyrano. Ez da besteak bezalakoa, desberdina da bere sudur handiagatik eta amodioz animatua da, gainera kuraia ez zaio falta eta bihotz onekoa da.

Bai, Cyrano bere kusia maite du, hain da muñuña, mairu arrosaren idurikoa, liluragarria. Gizonek xerkatzen duten pozoin ezta da, arropa gorritz jantzia den emakume hura, doi bat lanjerosa baina hainbat gutiziatua...

Bizkitartean, Roxanne xoragarriak Christian du gogoan gau ta egun... printze perfektua : hain galanta, hain ederra... baina arrunt gaizoa, net zozoa...

Cyrano-k gaztetxoaren bihotza hunkituko du, ahaldun hori dauka, segur. Zergatik ?

Pertsonai nagusi hori itzaleko gizon bat delako. Nahiz ez ederra izan fisikoki, azkarra da, handia da eta gainera poeta da : “Cyrano biziki abila zen, borrokalari azkarra eta poeta baina oroz gainetik, biziki pehestia zen”.

**Edmond Rostand**.en eleberririk ohikoan bezala, amodioa, hain goxoa eta mingarri den sentimendua, intrigaren erdi erdian da.

Ixtorio horrek nostalgiaz inguratzen gaitu eta Cyrano zinez maitatzen dugu, bere bihotza sudurra baino milaka handiagoa duelako...

## *Japoniar itxurako estetika bat*

Edmond Rostand. en obraren moldaketa honentzat, **Rébecca Dautremer**.ek Japoniar itxura daukan giro batean kokatzeko ideia pollita aurkitu du. Balentri harrigarria lortu du obra horren lekuz aldatzeko arrunt beste ingurumen batetara, edertasunez bete dena. Itzal-argiz osatua den unibertso batean graziaz beteak diren itxura lerdinak bizitzen eta mugitzen dira, hauen indartzeko itzalkin, izpika eta beste urgitasun seinale ainitz aurkitzen direla.

Nahiz eta Edmond Rostand. en obra Frantziako 17garren mendean kokatzen zen, Japoniar itxura duen giro exotikoa zaindu nahi dugu taula zuzendaritzan (amanda itxurako begiak, bonzai arbolatxoak, samurai gudariak eta kimono jantziak...).

## *Testu laburtua*

Tai-Marc Le Thanh. en moldaketa huntan jatorrizko obraren oinarri dramatikoak ateratzen da, irudimena azkartzen duten parentesi ugari aurkitzen dira, argitze oharrak ere bai, umore eta txiste ainitzekin.

Istoria fidela da orohar, sinplifikatua bai, baina koherentea gelditzen da eta hiztegi aberats bat mantentzen zaio, doinu libertigarrian. Autoreak ez du hitzez hitz hartu testua, eta horrekin jostatzen da ainitz.

Rostand. en Cyrano de Bergerac pertsonaitik, autoreak funtsezkoena hartzen du. Jatorrizko obraren indar guziaz aurki daiteke eta lotuak diren gaiak ere bai : amodioa batez ere, baina bekaizkeria ere bai, mespretsua, nahikeria, adorea, sentimenduen indarra, desberdintasunari buruzko begirada.



# TAULA ZUZENDARITZAZ BIZPAHIRU HITZ ERAGIN ZONBEIT ...

**Rébecca Dautremer**.en marrazkietaz eragin azkarra ukanan duen ingurumenan, estetika eta espazioa landu batean kokatuko da ikusgarria. Japoniar baratze, belar handi, izpika eta mairu arrosen artean ibiliko gira, zeintan usain eta azantzek istorioarekin bat egingo duten. Egur exotikozko apaindura, berinezko landaretegi tripiak, eta beste usain goxo hedatzaileek, detailezko kuadro biziduna, kutxatila kuttun bat moldatuko dute. Haize firfira, ur kantu eta urrin eztiak juntatuko dira... hots baldintza guziak elkartuko dira poesia zatitxoak entzuteko, sudur potolodun amorosek ere babes leku bat aurki dezaten beraientzat.

Istoria hau baratze exotiko batean kokatuz, « Cyrano »ren sudurra usainen erdi erdian emaiten da. Gure pertsonai guziak usain horien eraginpean izanen dira. Usaimena hurbiltasunaren zentzu bat da, askotan emozio ekarle dena, eragin premiatsua daukana amodiozko sentimenean. **Roxanne**.i hitzen perfumea bezainbat gustatzen zaio usaimena. 3 antzezlarisek dute kondatuko « Cyrano »ren istorioa. Emazte bozek dute ekarriko kontakizuna. **Roxanne** neska xoragarria interpretatuko dute eta **Cyrano, Christian eta De Guiche** 3 samurai-gudariak ere bai. Amodio gertaldietan eta gudu gertaldietan berdin, gizonex edo emaztez itxuraldatuko dira. **Nô** antzerkiaren gisaran, maskak erabiliko dituzte, batzutan kontakizunean beste batzutan aldiz jokoan.

Itzalean gorderik, izpika sasu baten atzean edo eguzki sortzearen argipean, antzezlarisek gorputz joko berezia eramango dute. Kabuki Japoniar antzerki motako ezaugarriak eta borroka-arte teknikak baliatuko dituzte samourai-gudariei gorputza emateko. Borroka dantzatuak izanen dira bortizkeria eta heriotza adierazteko.

## Pedagogi ohartxoak...

Haurren irudimenaren garatzeko eta akuilatzekeo, beharrezkoa da istorioaren kondatzea antzerkian. Frantses literaturako goi-obra bat gaurkotuz eta helgari bilakaraziz gaztetzako, literaturari hurbilazten dira eta antzezlanari ere bai. Geroxago, **Edmond Rostand**.en obra aurkituko dute berriz eta agian errexkiago preziatzen ahalko dute bere edertasuna. Istoria honek beraien haurtzarora zeharkatuko du.

Gure kulturak, inguruko ondareak, gure iraganak... eragin bat daukate sorkuntz prozesu askean. Obra nagusi horiek landu eta baliatu behar ditugu inguratzen gaituen mundu modernoaren oihartzunak luzatzeko. Baitezpadakoa da ere obra horien baliatzea horietaz jabetu gabe. **Deus berririk ez da sortzen, transformatzen baizik.**



# IDAZLEAREN INTENTZIO OHARRAK

« Liburuaren inguruan lan egiten nuenean bezalakoak dira nire xedeak. Lehenik, urruntasuna hartzea Rostand.en obrarekiko. Mamia zaindu baina izpirituari sobera lotu gabe, ez eta antzezlanaren klazizismoari. Liburuan, istorioa zeharraldatu badut erdiaroko Japoniara, helburu bat neukan. Antzezlanaren moldaketan, fantasia giro bat emango nuke. Fantasia horren doinua emana dateke antzezlan moldaketaren tituluaren hautuan.

Cyranoren istorioa hitz bakar batez behar banu lotu “distira” hauta nezake. Distiratsu den zerbeitik suhartasunez eragozten gaitu, uste eta lotsagabean harrapatzen, irri eta malkoak barne barnetik juntaraziz. » **TAI - MARC LE THANH**

# ILUSTRATZAILEAREN INTENTZIO OHARRAK

« XVIIgarren mendiko parpaila ta dentela jantziak ez zizkidan gustatzen. Egun batez, begiratu nuen Zhang Ymouk zinegilearen « Le secret des poignards volants » sabre-filma, zointan jantziak biziki ederrak ziren. Horrek gogoak eman dit Edmond Rostand.en istorio ta pertsonaiak eramatea Asiak inspiratutako giro batetara. Istorioa kondatzen duen Thai Marc.ekin, pentsatzen ginuen zeharraldatze horrek baimentzen gintuela ere amodio kontakteta hortaz jabetzeko nolazpeit eta goi-obra horren parrean ginituen konplexuetatik libratzeko.

Jolastu naiz ere pertsonaiak landare batzuekin bateratzen. Roxannentzat landapinta, axtaperrexila Cyranorentzat... eta ere euri giroan ematea agerraldiak, nahiz zaila izan grafikoki horren adieraztea. » **RÉBECCA DAUTREMER**



# TALDE ARTISTIKOA

**Testua & Moldaketa** : Tai-Marc Le Thanh

**Itzultzaile** : Txomin Urriza Luro

**Taula zuzendaritza** : Hervé Estebebeguy

**Antzerkilari** : Bárbara Rivas, Alazne Etxeberria, Maryse Urruty  
**Zenografia, Jantziak & Gauzakiak** : Francisco Dussourd

**Maskak** : Annie Onchalo

**Koregrafia** : Fabien Piquemal eta Ixa Larralde

**Musika sorkuntza** : Clo

**Teknika kudeatzaile** : Aitz Amilibia, Julien Delignières,  
Mathias Delqueyroux, Jon Foucher eta Pantxo Claverie

**Apaindura egile** : Carlos P. Donado

**Afitxa** : Rebecca Dautremer



**Argazkiak** : Guy Labadens





*Frantses bertsioiko ikusgarriaren argazkiak*





# HARREMANAK

**Hecho en casa Konpania**  
21 rue Albert Le Barillier  
64600 Anglet

**Harrera eta idazkaritza**  
Coralie Blain  
+33 (0)6.84.16.40.89  
[administration@cie-hechoencasa.com](mailto:administration@cie-hechoencasa.com)

**Arduradun artistikoa**  
Hervé Estebeteguy  
+33 (0)6.21.55.94.40  
[herve.estebeteguy@cie-hechoencasa.com](mailto:herve.estebeteguy@cie-hechoencasa.com)

**Hedapen arduraduna**  
TTIPIA-KULTURA  
Txelo Cerro Lure  
+34 622 667 926  
[gipuzkoa@ttipia-kultura.com](mailto:gipuzkoa@ttipia-kultura.com)

**Mail :** [cie.hecho.en.casa@gmail.com](mailto:cie.hecho.en.casa@gmail.com)  
**Web gunea :** [cie-hechoencasa.com](http://cie-hechoencasa.com)  
**Facebook :** Cie Hecho En Casa

Lizentzia zkia : 2 1084366  
Diseinu-grafia egilea : Anaïs Sindera  
Ilustrazioak : Rébecca Dautremer